

1



IMMIGRAZIOAREN ERAGIN DEMOGRAFIKOA

Marta Luxán

txostenak

Ikuspegi.





IMMIGRAZIOAREN ERAGIN DEMOGRAFIKOA

Marta Luxán



Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Argitaraldia: 2007ko apirila
Ale-kopurua: 500 ale
Argitaratzailea: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Fotokonposizioa: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Inprimatzea: ITXAROPENA, S.A.
Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
ISBN: 978-84-8373-956-3
Lege-gordailua: SS-520/2007

	Orr.
1. Sarrera	6
2. Atzerritarren migrazioaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan	6
3. EAEn bizi den populazio atzerritarraren egitura, adin- eta sexu-multzoka	8
3.1 Lurraldekako banaketa	11
3.2. Sexu- eta adin-multzokako egitura, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	15
4. Jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren bilakaera	26
4.1. Jaiotza-tasa	26
4.2. Heriotza-tasa	27
5. Zer gerta daiteke datozen urteetan?	29
5.1. Generoen arteko erlazioak birdefinitu	30
5.2. Bizitza luzatzea, adinak birdefinitzea	30
5.3. Etorkizun hurbilaz	31
6. Ondorioak	32
7. Oharrak	34
8. Bibliografia	35
9. Hausnartzeko	36

	Orr.
1. taula. Atzerritarren immigrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere lurralde historikoetan izan duen bilakaera, 1998-2006 bitartean	7
2. taula. Populazio atzerritarren bilakaera, kopuru absolutu eta erlatiboetan. Espainia, 1998-2006	8
3. taula. Biztanleria atzerritarren bilakaera, jatorrizko geografia-inguruaren arabera. EAE, 1999-200	15
4. taula. Jaiotza-tasaren bilakaera EAEn, 1999-2004 artean	26
5. taula. Heriotza-tasaren bilakaera EAEn, 1999-2005	29

	Orr.
1. diagrama. EAEko 1999ko biztanleria atzerritarraren piramidea	9
2. diagrama. EAEko 2005eko biztanleria atzerritarraren piramidea	9
3. diagrama. Biztanleria atzerritarraren eta EAEko biztanleria osoaren 1999ko egitura, sexuaren eta adin-multzo handien arabera	10
4. diagrama. Biztanleria atzerritarraren eta EAEko biztanleria osoaren 2005eko egitura, sexuaren eta adin-multzo handien arabera	10
5. diagrama. Arabako biztanleria atzerritarraren piramidea, 1999an	12
6. diagrama. Arabako biztanleria atzerritarraren piramidea, 2005ean	12
7. diagrama. Bizkaiko biztanleria atzerritarraren piramidea, 1999an	13
8. diagrama. Bizkaiko biztanleria atzerritarraren piramidea, 2005ean	13
9. diagrama. Gipuzkoako biztanleria atzerritarraren piramidea, 1999an	14
10. diagrama. Gipuzkoako biztanleria atzerritarraren piramidea, 2005ean	14
11. diagrama. 1999an EAEn bizi zen biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	17
12. diagrama. 2005ean EAEn bizi zen biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	18
13. diagrama. Arabako 1999ko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	20
14. diagrama. Bizkaiko 1999ko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	21
15. diagrama. Gipuzkoako 1999ko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	22
16. diagrama. Arabako 2005eko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	23
17. diagrama. Bizkaiko 2005eko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	24
18. diagrama. Gipuzkoako 2005eko biztanleria atzerritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera	25
19. diagrama. EAEko gizon-emakume atzerritarren jaiotza-tasa eta heriotza-tasa gordinen bilakaera eta jaiotzen nahiz heriotzen proportzioarena, 1999-2005	28

1. SARRERA

Nazioarteko migrazioa, gizarte-prozesu gisara, mende hasi berri honen bereizgarrietako bat da. Horregatik, berau aztertzea da gaur egungo gizarte-zientzien zereginetako bat. Migrazioak aztertzea beti izan da gai delikatuak ikuspegi demografikoari dagokionean, are gehiago nazioarteko migrazioek ari bagara. Horrela, mugikortasuna neurtzea ez da lan erraza, batez ere hainbat herrialderen baitako desplazamenduak direnean; izan ere, demografia-iturriak neurtzeko kudeaketa eta eremuak estatuei dagozkien lurraldeei estuki lotuta baitaude.

Txosten honek zera du helburu, atzerritarren egungo immigrazioek Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragin demografikoa aztertzea eta, ahal den neurrian, etorkizuneko joerak eta portaerak aurreikustea. Kontua ez da zehatz-mehatz zenbatzea, baizik eta, Aierdik adierazi duen legez (Aierdi, 2006), joerak egiaztatzea; dauzkagun datuak erabilgarriak gerta dakizkiguke lan horretarako.

Alde batera utziko dugu, beraz, atzerritartasunaren finkapen eta definizio juridikoaren prozesuari buruzko analisia. Izan ere, prozesu hori gertakariaren ikusgarritasun estatistikoa baldintzatu duen labirinto burokratiko bilakatu baita, Brancós eta Domingok adierazi duten bezala¹. Era berean, ez gara hasiko Errolda Jarraituko datuen zuzentasunari buruzko eztabaidan, hura txosten honetako datu-iturri nagusia izan arren. Arrazoi berberengatik baztertu dugu biztanleriaren proiektzioak egiteko asmoa, eta orokorrean, lurralde historikoetan oinarrituko gara lurralde-banaketa egiteko.

Bestalde, bistakoa da EAEn bizi den biztanleria atzerritarren zenbatekoa ez dagoela alderatzerik Europako beste eskualde batzuetakoarekin. Baina zenbait adituk Europar Batasunean azken aldirian migrazio-fluxuek izan duten bilakaeraren bereizgarritzat jo dituzten ezaugarri berberak antzematen dira, hemen ere: bizkortzea, jatorriak dibertsifikatzea, emakumeen portzentaia handiagoa, irregulartasuna handitzea (Salt eta beste hainbat, 2000).

Gainera, demografia-ikuspegi hutsari dagokionez, eta EAEko eremuan, zera esan dezakegu: egungo migrazio honek baduela antzekotasunik 50 eta 60ko hamarkadetakoarekin, emakume nahiz gizonetzko heldu gazteak baitira etorritakoak, ugalketa-adinean daudenak (Arregi, Larrañaga, Martín, 2006), nahiz eta intentsitate ezberdineko etorrera izan.

Edonola ere, ezin dugu ahantzi gaur egungo gure gizartearen osaketan giza mugikortasun geografikoak izan duen eragin handia: 1950 eta 1975 urteen artean jasandako hazkundearen erdia, esate baterako, migrazioaren zuzeneko nahiz zeharkako ekarpenari dagokio (Luxán, 2004). Joera honi 1975ean eman zitzaion buelta, urte hartatik aurrera migrazio-eremak negatiboak gertatu baitziren, eta horrela iraun zuten gainera, XXI. mende hasierara arte. Gaur egun ordea, migrazio-eremak positiboak da, duela hamarkada bat pasatxo gero eta biztanle atzerritar gehiago hasi baitzen etortzen. Bistakoa da beraz, zenbaterainoko garrantzia duen atzerritarren migrazioak aztertzeak, egungo gure gizartearen kudeatzerakoan kontuan hartzeko.

2. ATZERRITARREN MIGRAZIOAREN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Andreu Domingok zera planteatu du, Estatuan atzerritarren immigrazioak izan duen ezohiko hazkundea bi ikuspegitik uler daitekeela: baliteke dagoeneko sabaia jo duen jauzi kualitatibo izatea, hau da, norabide berean eragin duten hainbat faktore pilotzeak ekarri duen migrazio-booma; edo alderantziz, 90eko hamarkadan enretzen ari zen joeratzat baino hartu ez genuena, gerora zenbaterainoko neurria har zezakeen eta hori zeinen azkar gertatuko zen burutik pasa ere egin gabe. Bigarren irakurketa honen arabera, migrazio-fenomeno honek Estatuan izan duen bilakaera Europako beste zenbait herrialdeetako atzerapenez letorke, beste behin², baina nazioarteko migrazio-eremuak sekula ezagutu gabeko intentsitatez gertatuko direla iragarriko luke, eta ondorioz, Europako Batasunarekiko balio maximoetan ezarriko luke Estatuak, biztanleria atzerritarren dagokionean (Domingo, 2004).

Demografo katalanak bigarren aukeraren alde egiten du, baina egoera hori Euskal Autonomia Erkidegoko egoeratik urrun dagoela dirudi. Izan ere, Estatu osoan hazkunde txikienetakoa eta erritmo are motelagokoa izan duen lurraldeetako bat baita³. Horrela, INEk 2006ko uztailean prentsaurreko bidez kaleratutako datuen arabera, Illes Balears da biztanle atzerritarren proportziorik handiena duen autonomia-erkidegoa, %15,6rekin, eta Comunitat Valenciana eta Murtzia hurrengoak, %13tik gora; Estatuko batz bestekoa berriz, %8,7koa da. Ikus ditzagun Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko zenbait datu:

1. taula. Atzerritarren immigrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere lurralde historikoetan izan duen bilakaera, 1998-2006 bitartean

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Bilakaera. Guztizko kopuruak									
EAE	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	83.547
Araba	2.460	2.801	3.818	5.462	8.031	10.445	12.058	15.141	16.324
Bizkaia	7.437	7.633	9.419	13.120	18.661	23.908	28.876	36.217	42.707
Gipuzkoa	5.301	6.359	7.903	8.856	11.716	14.878	18.232	21.536	24.516
Hazkundera. Zenbaki indizeak									
EAE	100	110	139	181	253	324	389	480	550
Araba	100	114	155	222	326	425	490	615	664
Bizkaia	100	103	127	176	251	321	388	487	574
Gipuzkoa	100	120	149	167	221	281	344	406	462
Biztanleria atzerritarren bilakaera (%)									
EAE	0,72	0,8	1,01	1,31	1,82	2,33	2,8	3,4	3,9
Araba	0,86	0,98	1,33	1,89	2,75	3,55	4,07	5,1	5,5
Bizkaia	0,65	0,67	0,83	1,16	1,65	2,11	2,55	3,2	3,9
Gipuzkoa	0,78	0,94	1,16	1,3	1,72	2,17	2,66	3,1	3,4
Lurraldekako banaketa (%)									
EAE	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Araba	16,2	16,7	18,1	19,9	20,9	21,2	20,4	20,8	19,5
Bizkaia	48,9	45,5	44,6	47,8	48,6	48,6	48,8	49,7	51,1
Gipuzkoa	34,9	37,9	37,4	32,3	30,5	30,2	30,8	29,5	29,3

Iturria: Aierdi (2006) eta Errolda Jarraituko datuak (INE).

Orokorrean hitz eginda, erabilitako iturrien gaineko metodologia-zuhurtasun guztiaz bada ere, 1998tik 2006ra bitartean Erkidegoko biztanle atzerritarren kopurua 5,5 aldiz biderkatu dela baieztatu daiteke. Honela, 15.000 pasatxotik 83.000tik gora biztanle atzerritar zenbatzera igaro gara. Edonola ere, biztanle atzerritarrek duten pisua Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren %4az azpitik dago. Horrela bada, gure erkidegoa biztanleria atzerritarren ehuneko baxuena duten autonomia-erki-
dagoen multzoan dago kokatuta.

Lurralde historikoei dagokienez, Arabak izan duen hazkundera nabarmentzen da, kopurua 6,6 aldiz biderkatu baita bertan. Bizkaiak jarraitzen dio, ia 6 aldiz biderkatuz. Gipuzkoan aldiz, 1998 eta 2006 urteen artean laukoiztu besterik ez da egin. Igoera horiekin, Arabak du gaur egun biztanle atzeritarren ehunekorik handiena, % 5,5ekoa hain zuzen; Bizkaiak eta Gipuzkoak aldiz, % 3,9 eta % 3,4ko ehunekoak dituzte, hurrenez hurren.

2. taula. Populazio atzeritarraren bilakaera, kopuru absolutu eta erlatiboetan. Espainia, 1998-2006

	Biztanleria atzeritarra	Zenbaki indizeak	Biztanleria atzeritarra %-tan	E.A.E. / Espainia
1998	637.085	100	1,6%	2,4%
1999	748.935	118	1,9%	2,2%
2000	923.879	145	2,3%	2,3%
2001	1.370.657	215	3,3%	2,0%
2002	1.977.946	310	4,7%	1,9%
2003	2.664.168	418	6,2%	1,8%
2004	3.034.326	476	7,0%	1,9%
2005	3.730.610	586	8,5%	2,0%
2006	3.884.600	610	8,8%	2,2%

Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

Biztanleria atzeritarra lurralde historikotan nola banatzen den aztertzerakoan, Bizkaiak biztanlerian duen pisu handia nabaritzen da: lurralde historiko horretan bizi ziren, ikertutako denboraldian zehar, biztanle atzeritarren erdiak. Arabaren garrantzia gehitu izana ere nabari da, atzerriko herritar-tasuna duten biztanleen ehunekoa gehitu izanaren ondorioz.

Datu hauek estatukoekin alderatuz, zera ondoriozta dezakegu:


- Biztanleria atzeritarraren garrantzi erlatiboa txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, lehenago zehaztu dugunez.
- EAEko biztanleria atzeritarrak estatuko guztizko zenbatekoan duen pisu erlatiboa jaitsi egin zen 1998 eta 2003 bitartean, eta zertxobait igo da orduz geroztik.
- Biztanleria atzeritarraren kopuruak 1998tik hona izan duen hazkundera estatuko batz beste-koaren azpitik dago, zertxobait (ikus 2. taula, zenbaki indizeak).

Baina zer ezaugarri ditu biztanleria horrek?

3. EAE-N BIZI DEN POPULAZIO ATZERRITARRAREN EGITURA, ADIN- ETA SEXU-MULTZOKA


Lehen ere esan dugunez, emakume eta gizonezko heldu gazteak dira, nagusiki, ugalketa-adinean daudenak. Datu horiek bat-batean egiazta daitezke, biztanleriaren piramideei begiraturaz (1. eta 2. diagramak).

1. diagrama. EAEko 1999ko biztanleria atzerritarren piramidea



Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

2. diagrama. EAEko 2005eko biztanleria atzerritarren piramidea




Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

Halaxe da, EAEn bizi den biztanleria atzerritarra 20 eta 39 urte bitarteko multzoan pilatzen da, nagusiki: % 48,2a 1999an eta % 56,4a 2005ean. Garrantzi erlatiboari dagokionean bigarren adin-multzoa berriz, 40 eta 65 urte artekoa da: % 27,7a 1999an eta % 22,3a 2005ean. Hau da, % 75a baino gehiago pilatzen da aktiboak diren adin-tarteetan⁴, nahiz eta horrek ez duen esan nahi guztiak ari direnik lanean. Bestalde, denbora tarte labur honetan handitu egin da zertxobait 20 urtez azpikoen garrantzi erlatiboa, erkidegoko biztanle atzerritarren % 17a izatetik %18,8 izatera igaro baita multzo hori, aldi berean 64

urtetik gorakoen multzoa txikituz (% 7,2tik % 2,6ra). Gehikuntza horrek familiak berriz biltzeko prozesuekin dauka zerikusia, eta biztanleria atzerritarren egitura are gazteagoa egiten du.


Sexukako banaketari dagokionean, orokorrean orekatuta dagoen biztanleria da; % 50,1a eta % 48,7a ziren emakumeak, 1999an eta 2005ean, hurrenez hurren. Baina handiak dira jatorriaren araberrako ezberdintasunak, geroxeago ikusiko dugun moduan.

3. diagrama. Biztanleria atzerritarren eta EAEko biztanleria osoaren 1999ko egitura, sexuaren eta adin-multzo handien arabera



Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

4. diagrama. Biztanleria atzerritarren eta EAEko biztanleria osoaren 2005eko egitura, sexuaren eta adin-multzo handien arabera



Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

Biztanleria atzerritarren egitura EAEko biztanleria osoaren egiturarekin alderatzen badugu (ikus 3. eta 4. diagramak) kontrajarriak diren fenomenoaren protagonista direla ondoriozta dezakegu: biztanleriaren guztizkoa zahartu egin bada ikertutako denbora tarte labur horretan, biztanleria atzerritarra gaztetuta ageri da 2005ean. Sexukako banaketaren bilakaera ere ezberdina da bi biztanlerietan: gizonen eta emakumeen arteko aldea handiagoa da 40 urtetik beherako atzerritarren artean (gizonezkoak gehiago). Biztanleria osoaren datuei dagokionean ordea, ezberdintasun handiena 65 urtetik gorako artean dago, eta emakumeak dira, kasu honetan, gizonezkoak baino nabarmen gehiago direnak. Bistakoa da desoreka hori emakumeen bizi-itxaropenarekin zuzenean lotuta dagoela.

3.1 Lurraldekako banaketa


Homogeneoa al da lurralde historikoetako biztanleria atzerritarren egitura, adin-multzoka? Erantzuna ezezkoa da. 1999. urteari dagozkion piramideak aztertuz (ikus 5., 7. eta 9. diagramak), zenbait ezberdintasun nabari da:

- Araba da gizonezkoen ehunekorik handiena duen lurraldea, % 51,9 hain zuzen, eta baita 20 eta 49 urte arteko biztanleen kontzentrazio handiena duena ere. 30-34 urte arteko gizonezkoen ehunekoa hain handia izatea nabarmentzen da.
- Bizkaiak sexukako banaketa oso orekatua dauka, ia adin-multzo guztietan; izatekotan, emakumeen kopuru handiagoa aipa daiteke 20 eta 40 urte artekoetan, eta ez hain nabarmen 75 urtetik gorakoetan.
- Gipuzkoak du emakumeen ehunekorik handiena, % 50,6 hain zuzen, eta baita gizon-emakume heldu gazteen (20-39 urte) biztanleria-multzoaren kontzentrazio apalena ere.

6 urte igarota (ikus 6., 8. eta 10. diagramak), homogeneoago bihurtzeko joera nabari dela baieztatu dezakegu. Honoko ildo hauetan islatzen da joera hori:


- Araban, gora egin du gizonezkoen ehunekoak (% 54,9), biztanleria gaztetzen ari dela nabari da (handitu egin da 40 urtez azpiko adin-multzoen garrantzi erlatiboa) eta, aldi berean, taldeen arteko aldeak gutxitu egin dira (30-34 urte arteko gizonezkoen ehunekoaren eta ondoko multzoen ehunekoaren artean, esate baterako). 60 urtetik gorako biztanleria-multzoaren garrantzi erlatiboa apaldu egin dela nabari da, bestalde.
- Bizkaiak oso banaketa orekatua dauka sexuka, nahiz eta zertxobait hazi den emakumeen ehunekoa, 20 eta 30 urte artekoen ezberdintasunak handituz. Aurreko kasuan bezalaxe, aipatzekoa da egitura gaztetu egin dela, eta nabarmen handitzen dela 5 urtez azpiko haurren garrantzi erlatiboa. Bistakoa da modu berean, jaitsi egiten dela 65 urtetik gorako gizon-emakume atzerritarren ehunekoa.
- Gipuzkoa da aldaketa gehien jasan dituen lurraldea. Batetik, gaztetze-prozesua nabarmenagoa da: 20-39 urte arteko biztanleen ehunekoa % 44,2tik % 55,6 izatera igaro da 6 urtetan. Gizonezkoen ehunekoa handitu egin da, bestalde, emakumeak baino gehiago izatera igaroz. Adineko biztanleriari dagokionean berriz, 65 urtetik gorako gizon-emakumeen ehunekoak jasan du, kopuru erlatiboetan, galerarik handiena (1999an biztanleriaren % 9,3ak baldin bazuen 65 urte baino gehiago, 2005ean % 3,7ak baino ez).

5. diagrama. Arabako biztanleria atzerritarren piramidea, 1999an




Iturria: Egileak sortua, Errola Jarraituko datuetatik abiatuta.

6. diagrama. Arabako biztanleria atzerritarren piramidea, 2005ean




Iturria: Egileak sortua, Errola Jarraituko datuetatik abiatuta.

7. diagrama. Bizkaiko biztanleria atzerritarren piramidea, 1999an




Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

8. diagrama. Bizkaiko biztanleria atzerritarren piramidea, 2005ean




Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

9. diagrama. Gipuzkoako biztanleria atzerritarren piramidea, 1999an



Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

10. diagrama. Gipuzkoako biztanleria atzerritarren piramidea, 2005ean



Iturria: Egileak sortua, Errolda Jarraituko datuetatik abiatuta.

3.2. Sexu- eta adin-multzokako egitura, jatorrizko geografia-inguruaren arabera

Orain arte biztanleria atzerritarra bere osotasunean hartu badugu, ikus dezagun nola aldatzen den sexu- eta adin-multzokako bere egitura, jatorrizko geografia-inguruaren arabera (edo herritartasunaren arabera multzotan banatuta). Xehetasunak zehazteari ekin baino lehen, jatorrizko geografia-inguruaren arabera populazio atzerritarrak izan duen bilakaera orokorra deskribatuko dugu labor⁵, egin beharreko analisiaren esparru orokorra ezagut dezagun.

3. taula. Biztanleria atzerritarraren bilakaera, jatorrizko geografia-inguruaren arabera. EAE, 1999-2006

	1999			2003			2006		
	Biztanleria	%	Indizea	Biztanleria	%	Indizea	Biztanleria	%	Indizea
15en Europa	7.333	44,3	100	10.454	21,2	143	13.492	16,1	184
Gainerako Europa	765	4,6	100	3.727	7,6	487	10.075	12,1	1.317
Europa Guztira	8.098	48,9	100	14.181	28,8	175	23.567	28,2	291
Magreb	1.966	11,9	100	5.961	12,1	303	9.627	11,5	490
Gainerako Afrika	950	5,7	100	3.032	6,2	319	4.902	5,9	516
Afrika Guztira	2.916	17,6	100	8.993	18,3	308	14.529	17,4	498
AEB eta Kanada	577	3,5	100	889	1,8	154	820	1,0	142
Latinoamerika	3.934	23,8	100	22.657	46,0	576	40.205	48,1	1.022
Amerika Guztira	4.511	27,2	100	23.546	47,8	522	41.025	49,1	909
Txina	487	2,9	100	1.340	2,7	275	2.477	3,0	509
Gainerako Asia	476	2,9	100	1.064	2,2	224	1.845	2,2	388
Asia Guztira	963	5,8	100	2.404	4,9	250	4.322	5,2	449
Ozeania	66	0,4	100	102	0,2	155	97	0,1	147
Herrigabeak	3	0,0	100	5	0,0	167	7	0,0	233
Guztira	16.557	100,0	100	49.231	100,0	297	83.547	100,0	505

Iturria: Aierdi (2006) eta Immigrazioari Begirada 11. zenb. Errolda Jarraituko datuak.

Ezer baino lehen, Latinoamerikatik etorritako biztanleriak zuen pisua 1999 eta 2006 bitartean nabarmen handitu dela aipatu behar da, bai kopuru absolututan eta baita erlatibotan ere. 2006an, biztanleria atzerritarraren % 50a osatzen zuten ia. Europatik etorritakoen multzoa da bigarren aipatu beharrekoa. Kopuru absolututan ugaritu egin badira ere, kopuru erlatiboari dagokionean garrantzia galdu dute: % 48,9a osatzen zuten 1999an, eta % 28,2a besterik ez, zazpi urte beranduago. Dena dela, alderantzizko noranzkoan doazen bi joera bereizi behar dira: handitu egin da Europako Batasunetik kanpoko jatorria duten gizon-emakumeen kopuruaren garrantzi erlatiboa, eta gutxitu berriz, Europako Batzordeko lurraldeetatik etorritakoen ehunekoa.


Gainerako taldeei dagokienean, Afrika eta Txinatik etorritakoen kopuruak guztizko batz bestekoen parean hazi ziren, zuten garrantzi erlatiboari eutsiz. Gainerako Asiatik, AEB eta Kanadatik etorritakoak, berriz, eritmo orokorraren azpitik hazi ziren, guztizko kopuruarekiko pisua galduz.

Jatorrizko geografia-inguruaren arabera 1999ko biztanleria-piramideak behatuz berriz, zera esan dezakegu:


- Jatorrizko geografia-inguruaren arabera da, neurri handi baten, biztanleria etorkinaren profila. Horrela, Magrebetik, gainerako Afrikatik, Txinatik eta gainerako Asiatik datozen pertsonen artean gizonezkoak dira nagusi (% 72, % 68, % 55,7 eta % 67, hurrenez hurren). Latinoamerikatik datozenen multzoaz berriz, % 60a emakumeek osatzen dutela esan behar. Sexu banaketari dagokionean, Europako Batasunaz kanpokoan piramidea eta AEB eta Kanadakoena dira orekatuenak (% 50 eta % 47,6 dira emakumeak, hurrenez hurren).
- Gizonezkoak ugariagoak diren geografia-inguruak dira, aldi berean, biztanleria heldu gazteen (20-39 urte) kontzentrazio handiena dutenak. Horrela, lan-merkatuan txertatzea helburu duen migrazio-proiektuekin lotu dezakegu gizonezko gazte horien migrazioa.
- Latinoamerikako emakumeek ere profil bertsua daukate; hau da, emakume horien bizi proiektua ere lanean jardutearekin oso lotua dago.
- Europako Batasunetik gizonezko gehiago datoz emakumeak baino, baina adinari dagokion banaketan gazteen askoz kontzentrazio txikiagoa nabari da, orain arte aipatutako kasuetan baino.

11. diagrama. 1999an EAEn bizi zen biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


1999. EB15




1999. Gainerako Europa




1999. Magreb




1999. Gainerako Afrika




1999. AEB eta Kanada




1999. Latinoamerika



1999. Txina




1999. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodatuetatik abiatuta.

12. diagrama. 2005ean EAEn bizi zen biztanleria atzeritarraren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


2005. EB15




2005. Gainerako Europa




2005. Magreb




2005. Gainerako Afrika




2005. AEB eta Kanada




2005. Latinoamerika



2005. Txina



2005. Gainerako Asia



Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturtatik abiatuta.

- Batasunetik kanpoko Europari dagokionean, biztanleria heldu gazteen ehunekoa handia da: biztanleen % 19a 25-30 urte artekoa da, eta % 56,5a pilatzen da 20-39 urte artekoen multzoan.
- AEB eta Kanadatik etorritako biztanleriari dagokionez berriz, esan behar ez dagoela horrenbesteko pilaketarik adin-multzoetan. Aipatzekoa da, gainera, elkarren ondoko adin-multzoen artean alde handiak daudela, orotara jende-multzo txikia izatearen ondorioz (1999an Ipar Amerikatik etorritako 577 pertsona zeuden erroldan izena emanda).


6 urte igarota, gizonezkoen nagusitasuna apaldu egin dela esan dezakegu, lehen aipatutako geografia-inguruetatik etorritako biztanleriari dagokionean (Magreb, gainerako Afrika, Txina eta gainerako Asia). Aldi berean, handitu egin da emakumeen ehunekoa Latinoamerikatik etorritakoen artean. Adinari dagokionez berriz, pilaketa txikiagoa nabari da adin-multzo jakin batzuetan, nahiz eta oraindik ere erabakigarria izan emakume nahiz gizonezko heldu gazteen pisua. Analisi zehatzagoa eginez, zera ondoriozta dezakegu:

- Orekatzeko joera hartu du Europatik etorritako biztanleriaren sexu eta adinaren arabera egiturak, nola adinari hala sexuari dagokionean. Ildo honetan, Batasunetik kanpoko Europatik etorritakoei dagokienean zera aipatu behar da: 60 urte edo gehiagoko pisua handitu egin dela batetik, eta bestetik, emakumeen ehunekoa handitu egin dela multzo horretan (guztira 13 aldiz biderkatu du bere kopurua multzo horrek, 1999 eta 2006 artean).
- Afrikako kontinentetik etorritakoei dagokienean, apaldu egin da gizonezkoen nagusitasuna. Oraindik ere gizonezko gazteen pisua aipagarria izaten jarraitzen duen arren, handitu egin da emakumeen ehunekoa (gertaera hori familiak elkartzeko politikekin lotu daiteke batetik, eta baita migrazio-proiektu baten protagonista diren hainbat emakumeren etorrerarekin ere bestetik, proiektu hori familiarra zein norbanakoarena izan).
- AEB eta Kanadako piramidean, 65 urtetik gorako kopurua nabarmentzen da. Erretiroarekin lotutako biztanleria-mugimenduekin izan dezake zerikusia gertaera horrek, baina multzo osoaren zenbatekoa hain txikia izanik (800 pertsona pasatxo), ezin dugu behin betiko ondoriozterik atera.
- Naziotasun latinoamerikarrak dituzten biztanleei buruz, bestalde, zera esan genezake: handitu egin direla bai guztizko kopurua eta baita emakumeen ehunekoa ere (biztanle-multzo honen % 60a izatetik % 65,7a izatera igaro dira emakumeak). 25 eta 39 urte arteko emakumeen ehunekoa, gainera, nabarmen handitu da, eta beraz, nagusiki gizonezkoek osatutako biztanleria multzoekin alderatuz, alderantzizko joera antzeman daiteke hemen.
- Azkenik, Txinako eta gainerako Asiako piramideek oreka handiagoa erakusten dute, nola sexuari hala adinari dagokienean. Hori bai, 0-5 urte arteko multzoa murriztu egin dela nabarmentzen da.


Jarraian, lurralde historiko bakoitzak sexuaren eta adinaren arabera duen egituraren irudikapena erakusten dugu. Jakina, errepikatu egiten dira orain arte aipatutako ildoak, bai jatorrizko geografia-inguru bakoitzari dagokion profilaren berezitasunak, eta baita lurralde historiko bakoitzerako lehen deskribatutakoak ere.

13. diagrama. Arabako 1999ko biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


1999. EB15




1999. Gainerako Europa




1999. Magreb




1999. Gainerako Afrika




1999. AEB eta Kanada




1999. Latinoamerika



1999. Txina




1999. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturtatik abiatuta.

14. diagrama. Bizkaiko 1999ko biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


1999. EB15




1999. Gainerako Europa




1999. Magreb




1999. Gainerako Afrika




1999. AEB eta Kanada




1999. Latinoamerika



1999. Txina




1999. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturatetik abiatuta.

15. diagrama. Gipuzkoako 1999ko biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


1999. EB15




1999. Gainerako Europa




1999. Magreb




1999. Gainerako Afrika




1999. AEB eta Kanada




1999. Latinoamerika



1999. Txina




1999. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturtatik abiatuta.

16. diagrama. Arabako 2005eko biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


2005. EB15




2005. Gainerako Europa




2005. Magreb




2005. Gainerako Afrika




2005. AEB eta Kanada




2005. Latinoamerika



2005. Txina




2005. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturatetik abiatuta.

17. diagrama. Bizkaiko 2005eko biztanleria atzerritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


2005. EB15




2005. Gainerako Europa




2005. Magreb




2005. Gainerako Afrika




2005. AEB eta Kanada




2005. Latinoamerika



2005. Txina




2005. Gainerako Asia




Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturtatik abiatuta.

18. diagrama. Gipuzkoako 2005eko biztanleria atzeritarren piramideak, jatorrizko geografia-inguruaren arabera


2005. EB15




2005. Gainerako Europa




2005. Magreb




2005. Gainerako Afrika




2005. AEB eta Kanada




2005. Latinoamerika



2005. Txina



2005. Gainerako Asia



Iturria: Egileak sortua, INEren mikrodaturatik abiatuta.

4. JAIOTZA-TASAREN ETA HERIOTZA-TASAREN BILAKAERA

4.1. Jaiotza-tasa

Biztanleriaren hazkundera hazkunde begetatiboak⁵ -jaiotza-kopurua ken heriotza-kopurua- eta migrazio-saldoak -etorkinak ken joale edo emigratzaileak- zehazten dute. Baina zein da ekuazioko bi termino horien arteko erlazioa? Zenbatekoa da biztanleria atzerritarrek hazkunde begetatiboari egiten dion ekarpena? 4 taulan ikus daitekeenez, 1999an 16.787 jaiotza gertatu ziren EAEn, eta horietatik 390ek atzerritarra zuten ama; 2005ean berriz, 19.698-tik 1.528-k, hau da, ama izan diren guztien arteko atzerritarren ehunekoak igoera esanguratsua izan du.

4. taula. Jaiotza-tasaren bilakaera EAEn, 1999-2004 artean

	EAE (guztira)			EAE (ama atzerritardunak)			
	Jaiotzak	1999=100	JTG	Jaiotzak	1999=100	JTG	Guztizkoarekiko %
1999	16.787	100	8,1	390	100	23,2	2,3
2000	17.316	103,2	8,4	483	123,8	22,8	2,8
2001	17.647	105,1	8,5	607	155,6	22,1	3,4
2002	18.133	108,0	8,7	836	214,4	21,8	4,6
2003	19.267	114,8	9,2	1.075	275,6	21,8	5,6
2004	19.594	116,7	9,3	1.288	330,3	21,8	6,6
2005	19.698	117,3	9,5	1.528	391,8	21,0	7,8

Iturria: Egileak sortua, Biztanleriaren Berezko Mugimendutik (BBM) abiatuta (Eustat eta INE).

Jaiotza kopurua jaiotza horiek gertatu direneko biztanleriarekin erlazionatuz, jaiotza-tasa gordina ateratzen dugu (JTG). Tasa hori oso orokorra da, baina gertaeren kontabilitate hutsa baino informazio landuagoa eskaintzen du. Horrela bada, 1999an ama atzerritardun 23,2 jaiotza gertatu ziren, EAEko 1000 biztanle atzerritarreko; 2005ean 21 jaiotza ziren mila biztanleko. 1999an eta 2005ean EAEn orokorrean mila biztanleko hurrenez hurren gertatu ziren 8,1 eta 9,5 jaiotzatik oso urrun daude kopuru horiek.

Jakina, adinaren arabera egitura erabakigarria da tasa gordinen kalkuluetan: ugalketa-adinean dauden gizon-emakumeen ehuneko handiagoa duen biztanleriak jaiotza-tasa gordin handiagoa izango du, normalean, biztanleria zahartuagoak baino. Baina horrek ez du esan nahi, adinaren arabera egitura denik jaiotza-tasaren bilakaeran eragiten duen faktore bakarra. Kasu honetan, EAE oso ugalkortasun-tasa apala duen Europako eskualdeetako bat da; etorkin gehienak aitzitik, ugalkortasun-tasa handiagoko lurraldeetatik datoz. Are garrantzitsuagoa da oraindik, jatorrizko lurralde horietan ama eta aita izatearen balioa eta esanahia oso bestelakoak direla. Alegia, askotarikoak direla biztanleria atzerritarren jaiotza-tasa gordina gainerakoena baino handiagoa izatearen arrazoiak.

Bestetik, zera aipatu behar da, guztizko jaiotza-tasa gordina zertxobait handitu den aldi berean, biztanleria atzerritarrenak behera egin duela. Jaitsiera honen arrazoia zera izan daiteke, azken urteotan biztanleria atzerritarren hazkunde-erritmoa azkartu egin izana; jaiotzena baino bizkorragoa baita, noski, aipatutako erritmo hori.

Edonola ere, ama atzerritarrengandik jaiotako haurrek guztizko kopuruarekiko osatzen duten ehunekoak etengabe egin du gora (urteko ehuneko bat inguru, 2001etik), 1999an % 2,3a izatetik, 2005ean % 7,8a izatera iritsi arte. Aipatzekoak dira, bestalde, lurraldeka dauden ezberdintasun nabarmen eta gero eta handiagoak (ikus 19. diagrama): Araban jaiotzen % 11 baino gehiago baziren, 2005ean, Gipuzkoan ozta-ozta gairitu zuten guztizko jaiotzen % 5a. Gainera, biztanleriarekin gertatzen zen

moduan, Araban proportzio hori gainerakoena baino askoz erritmo bizkorragoan handitu da. Guztiz bestelakoa da, ordea, Bizkaiko bilakaera, 2001 eta 2004 artean ama atzerritardun jaiotzen proportziorik handiena izan ostean, 2005ean behera egin baitu ehuneko horrek (% 5,6, % 9,4 eta % 8,1, hurrenez hurren).

Ez dugu ahaztu behar, batetik, biztanleria atzerritarraren ehunekoa ez dela berbera hiru herrialdeetan, Araba izanik proportziorik handiena duena, eta Gipuzkoa gizonezkoen kopurua gehien handitu den herrialdea. Herrialde horretan bertan, bestalde, 15en Europatik⁷ etorritako biztanleen kopuru handia nabarmentzen da. Talde horrek zahartuagoa du adinaren arabera egitura gainerakoek baino, eta gainera, ugalkortasunarekin lotutako jarraibideak gure gizartearen antzekoagoak diren inguruetatik etorritakoek osatzen dute. Horiek eta beste zenbait kontu daude herrialdeen arteko ezberdintasunen oinarrian.

Azkenik, kopuru hauek Estatuko guztizkoarekin -% 15a- edo beste herrialde batzuekin alderatuz gero -Nafarroan esate baterako, jaiotzen % 15,5a ama atzerritardunak izan ziren, eta Gironan berriz % 28a, 2005ean-, atzerriko immigrazioak EAEn eta bere lurralde historikoetan eragin erlatibo apala izan duela egiazta dezakegu, beste behin.


Amaitzeko, iturrien diseinuari eta erabilerari buruz hausnartzea egokitzen da, berrito ere. Zergatik ezartzen da ezberdin jotzea ama atzerritar eta aita ez atzerritarraren seme edo alaba eta, alderantziz, aita atzerritarra eta ama ez atzerritarra duena? Izatekotan, immigrazioaren zeharkako ekarpena neurtu nahi bada, irizpide bakarra ezarri beharko litzateke bi kasuetarako; eta horrek bai jaiotza-tasa gordinean eta bai jaiotzen pisu erlatiboan eragingo luke.

4.2. Heriotza-tasa


Heriotza-tasa da biztanleriaren hazkunde naturalaren (begetatiboaren) bigarren osagaia. Gertaera demografiko hori azaltzeko faktore bakarra ez bada ere, modu erabakigarrian eragiten dio aztergai den biztanleriaren egiturak, jaiotza-tasari bezalaxe. Horrela, gurea bezalako gizarte baten heriotza-tasa -oso kontrolpean dagoena- adinaren arabera egitura gazteagoa duen gizarte bati aplikatuko bagenio, nabarmen gutxituko litzateke heriotzen kopurua. Jakina, bizi-baldintzek modu erabakigarrian eragiten dute heriotza-tasan, eta beraz, ezin pentsa genezake biztanleria atzerritarraren heriotza-tasa biztanleria orokorraren antzekoa denik, eta ezta homogenea denik ere, eta egungo zenbait aldagaik eragiten ez dionik, hala nola, jatorrizko geografia-ingurua, lan-jarduera mota...

19. diagrama. EAEko gizon-emakume atzerritarren jaiotza-tasa eta heriotza-tasa gordinen bilakaera eta jaiotzen nahiz heriotzen proportzioarena, 1999-2005


Jaiotza-tasa gordinen bilakaera, 1999-2005




Heriotza-tasa gordinen bilakaera, 1999-2005



Ama atzerritarrengandiko jaiotzen ehunekoa, guztizko jaiotzekiko



Gizon-emakume atzerritarren heriotzen ehunekoa, guztizko heriotzekiko



Iturria: Egileak sortua, Biztanleriaren Berezko Mugimendutik (BBM) eta Errola Jarraitutik abiatuta (Eustat eta INE).

Dena dela, biztanleria atzerritarren arteko heriotza kopuruan eragin nabarmena du adinaren araberako bere egiturak (gogora dezagun 65 urtetik gorako biztanleriaren garrantzi erlatiboa oso txikia dela, eta urteak pasa ahala, are gehiago murriztu dela gainera). Bestetik, kontuan hartu beharra dago horien arteko zenbait heriotza erregistratu gabe geratuko dela, seguruenik.

Jo dezagun baina, datuetara (ikus 5. taula eta 19. diagrama). 1999an 18.396 pertsona hil ziren, horietatik 79 atzerritarrak; 2005ean, 18.821 eta 104 heriotza izan ziren, hurrenez hurren. Tasa gordinak behatuz zera ondoriozta dezakegu, biztanleria atzerritarren hazkundeak modu erabakigarrian eragin duela haiek jaisteko; izan ere, heriotzen guztizko kopuruak igotzen jarraitu baitu (nahiz eta jaiotzen igoerak baino erritmo askoz motelagoan; eta horrek ere badu zerikusia biztanleria-multzo horren egiturarekin). Halaxe da; 1999an biztanleria atzerritarren heriotza-tasa gordina 4,7 heriotza-koa bazen mila biztanleko, 2005ean mila biztanleko 1,4 heriotzara jaitsi da. Bilakaera hori biztanleria orokorrarekin alderatzen badugu, aurkako joerak dituztela ohartuko gara, jaiotza-tasarekin gertatzen zen bezalaxe. Biztanleria osoari dagozkion heriotza-tasa gordinak zertxobait handitu badira, etorkinen multzoari dagozkionak nabarmen gutxitu dira. Eta gainera, heriotza hauek guztizko kopuruarekiko osatzen duten proportzioa ez da ia batere handitu. Azalpena beraz, adinaren araberako egiturak ematen digu, beste behin.

5. taula. Heriotza-tasaren bilakaera EAEn, 1999-2005

	E.A.E. (guztira)			E.A.E. (ama atzerritardunak)			
	Heriotzak	1999=100	HTG	Heriotzak	1999=100	HTG	Gutzizkoarekiko %
1999	18.396	100	8,9	79	100	4,7	0,4
2000	18.242	99,2	8,8	73	92,4	3,5	0,4
2001	18.087	98,3	8,7	79	100,0	2,9	0,4
2002	18.619	101,2	8,9	81	102,5	2,1	0,4
2003	19.305	104,9	9,2	102	129,1	2,1	0,5
2004	18.684	101,6	8,9	89	112,7	1,5	0,5
2005	18.821	102,3	9,2	104	131,6	1,4	0,6

Iturria: Egileak sortua, Biztanleriaren Berezko Mugimendutik (BBM) abiatuta (Eustat eta INE).

Lurraldekako ezberdintasunei dagokienez, atzerritarren heriotzen ehunekoak lurralde bakoitzean izan duen bilakaeratik (ikus 19. diagrama) zera ondoriozta dezakegu: batetik, txikiak direla ezberdintasunak, eta bestetik, Bizkaian eta Gipuzkoan ehunekoek gorabeherak badituzte, Araban gora egiten dutela (oso gutxi, baina etengabe). Horrela, Araba da pertsona atzerritarren heriotzen ehunekorik handiena duen herrialdea, 2001 urteaz geroztik.

Amaitzeko, esan estatu mailan pertsona atzerritarren heriotzen portzentaia % 2,55ekoa dela, eta Alacant eta Malaga direla ehunekorik handienak dituztenak -% 11,66 eta % 8,62rekin, hurrenez hurren-, biak ere 15en Europatik datozen erretiratu ugari jasotzen duten eskualdeak.

5. ZER GERTA DAITEKE DATOZEN URTEETAN?

Demografiari buruzko iragarpen oro funtsezko hiru faktoreren bilakaera diseinatzean oinarritzen da, hau da, ugalkortasuna, heriotza-tasa eta migrazio-mugimenduen bilakaera aurreikustean. Ildo horretan, biztanleriari buruzko proiektzioek ez dute etorkizunaren argazki zehatz, estatiko eta bakarrik atera nahi, demografia-dinamika ezberdinetan oinarritutako egoera posibleak baizik; hori bai, horietako batzuk beste batzuk baino gertagarriagoak. Dinamika horiek diseinatzeko, demografiaren egungo portaera ezagutu eta ulertzetik abiatu behar da; eta ez da beti erraza izaten.

Edonola ere, gure asmoa ez da biztanleriari buruzko proiektzioak egitea, atzerritarren immigrazioari dagokionean etorkizuneko zenbait joera erakustea baizik. Horretarako, biztanleria horren ezaugarri demografikoak deskribatu ondoren, nazioarteko migrazioan eragiten duten faktoreak zeintzuk diren ezagutu beharko dugu. Horien artean, honoko hauek aipatu behar: jatorrizko herrialdeen egoera sozio-politikoak, Europako Batasuneko, Estatu mailako, eta baita Autonomia Erkidegoko legediek ere arlo horretaz diotena, eta xede diren gizarteetako gizarte- eta demografia-faktoreak. Azken arlo horri ekin-gio, hain zuzen ere, segidan, gure gizarteko demografiari buruzko kontuei, alegia.

Domingok dionez, "Espainiako legedia herritartasun atzerritarra duen biztanleria bere lurretan finkatzea mugatu eta zailtzen tematzen bazen, eta (...) egoera irregularrean zeudenen kopurua proportzio kezkagarriak iritsi arte ugaritzea lortzen bazuen, demografiaren bilakaerak norabidea aldatzen jarraitzen zuen, nazioarteko migrazioari gero eta toki handiagoa emanez. (...) Migrazio hori osagarritasun terminoetan ulertu behar da, (...) lan-merkatuaren segmentazioa izanik erakarpen-faktorerik garrantzitsuenak, baina ez bakarra."⁸ Eta zera gaineratzen du, demografiaren bilakaerak orientazio berria hartzea bi prozesuren ondorio dela, XX. mendearen bigarren erdian herrialde garatuetako gizarte-egitura goitik behe-ra aldatu duten bi prozesuren ondorio, alegia: generoen arteko erlazioak birdefinitu izana batetik -sexuari lotutako rola, alegia-, eta adinen berregituraketa bestetik.

5.1. Generoen arteko erlazioak birdefinitu

Asko idatzi da generoen rolen aldaketari eta horren ondorio demografikoei buruz, familiak osatzeko prozesuei dagokienean batez ere. Berdintasunezko bikoteaz hitz egin da, egungo elkartzeen ezauzgarri den diru-sarrera bikoitzaz, osagarria den bikotetik parekatua den bikoterako iragaite-aldiaz eta iragaite horrek familiak osatzeko prozesuetan dituen eraginez eta abar. Horrela, -bai bikotearen baitako eta bai gizarte osoko- rol osagarrietatik berdintasunezko roletarako amaitu gabeko trantsizio hori izan da, hain zuzen, esate baterako ugalkortasuna jaisteko eragin duen faktoreetako bat⁹.

Beste behin ere, eraldakuntza hauek lehenago gertatu ziren Europa iparraldean, eta hegoaldeko herrialdeetan gertatzen direnerako, oso bestelakoa da testuingurua: hitz baten, baliabide gutxiago dituzte aldaketei aurre egiteko, batetik Ongizate Estatuaren garapen ahularengatik, eta bestetik, krisi ekonomikoaren eraginarengatik. Horren guztiaren ondorio nagusietako bat zera da, familiek hartu dutela bere gain, emakumeek zehatzago esateko, aldaketek eragindako kostu sozialen kudeaketa¹⁰.

Familiak osatu eta horiei eusteko prozesuetan eragiteaz gain, generoen arteko erlazioak eraldatze-tik eratorritako aldaketak begi bistakoak izan dira lan-arloan -gero eta emakume gehiago sartzen dira lan-merkatuan- eta hezkuntza-arloan -gehiakuntza ikusgarria emakumeen eskolatzeko- edo prestakuntza-mailan-. Domingoren hitzak erabiliz, "(...) Emakumeek lan-merkatuan duten parte hartzea handitu izanak eta sarrera bikoitza duten bikoteak ia orokortu izanak, premiaz mahai gaineratu du etxeko lanen eremuan berdintasunik (...) ez egotearen arazoa"¹¹. Egoera horretan, eta Estatu Ongizate Estatuaren garapena dena izanik, laneko bizitza eta familiakoa bateratu ahal izateko emakume horiek erabiltzen duten estrategietako bat etxeko lanak kanpoko baten esku uztea da. Horrela, eskulan atzeritarrak baliatzea gero eta ohikoagoa da, eta egoera ikusita¹², oraindik gehiago hedatzen jarraituko duela aurreikus daiteke.

Brancós eta Domingok (2001) adierazi duten bezala, immigrazio osagarriaren¹³ adibide baten aurrean geundeko; izan ere, emakume atzeritarrak egoteak eta horiek segmentatutako lan-merkatuan daukaten lekua izateak ahalbidetzen baitu bertako emakumeak merkatu horretan sartzea eta lan-maila igotzea. Merkatua segmentatze hori, beste faktore batzuekin batera, hezkuntza eta trebatze mailen gorakadarekin lotu behar da (emakumeena zein gizonezkoena), hau da, familiek hezkuntza-prozesuan egiten duten inbertsioarekin, eta horren ondorioz sortzen diren lan-eremuko, maila pertsonaleko zein familiako itxaropenekin.

5.2. Bizitza luzatzea, adinak birdefinitzea

Bizi-itxaropena luzatzeak, Julio Pérezek (2003) biziraupena demokratizatzea deitu duenak, funtsezko bi ondorio izan ditu, dagokigun gaian. Batetik, gero eta jende gehiago iristen da adin handietara, eta aurreko belaunaldiak baino baldintza hobeetan egiten du, gainera, osasun egoera hobean eta eskolatzeko-maila handiagoarekin. Horrek zahartzaroa birdefinitu beharra dakar, adin talde honek kopuruaren arabera duen garrantzia eta bizitza publikoan esku hartzeko dituen gaitasunak nabarmen gehitu baitira. Bestetik, adin nagusiko pertsonen proportzioa handiagoa izaterakoan, hazi egiten da menpeko biztanleriaren bolumena, hau da, eguneroko bizitzan aurrera egiteko nolabaiteko laguntza- ren bat behar dutenena. Menpeko pertsonen eskaini beharreko arretak dakarren lan eskergari aurre egiteko estrategietako bat kanpoko pertsonen esku uztea denez gero, eta horrelakoetan eskulantzat emakume atzeritarrak hartzea ugaritzen ari denez, datozen urteotan eskari horrek gora egitea aurreikus dezakegu.

Bestalde, bizi-itxaropena luzatzeak, hezkuntza- eta prestakuntza-aldia ere luzatzeak eta lan-merkatuan sartzeko eta etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunek gaztaroaren -"helduaroan sartu arteko itxarote-aldi hori" (Zubero, 2000)- iraupena ere luzatzea ekarri dute. Gaztaroaren ezaugarrietako bat mendekotasuna da (ekonomikoa edota etxebizitzari dagokiona), eta beraz, hezkuntzan eta prestakuntzan inbertitzea familia mailako estrategiatzat jo behar da, eta ez norbanakoaren estrategiatzat.

Generoen arteko erlazioen harira esan dugun moduan, norbanakoek eta familiek inbertsio horiei etekinak ateratzeko itxaropena izaten dute, lortutako prestakuntzaren arabera lanpostua lortzekoa, alegia. Eta hor agertzen zaigu, berriz ere, atzerriko immigrazioa, lan-eremu jakin batzuk betetzera datorrena, hain zuzen ere bertako biztanleriaren zati handi batek gehiegizko prestakuntza-maila baitu lan-eremu horietarako¹⁴. Ikuspegi horretatik, argia dirudi atzerriko eskulanaren eskariak gora egiten jarraituko duela, osagarritasun ikuspegitik beti ere, eta ez ordezkatzailatik. Egoera horri zera gehitzen badiogu, 1975 urteaz geroztik jaiotako belaunaldiak -hau da, lan-merkatuan txertatzen ari direnak eta etorkizun hurbilean txertatuko direnak- gero eta belaunaldi urriagoak direla, are nabarmenago ageri zaigu joera.

5.3. Etorkizun hurbilaz

Harrera-gizarteak dituen gizarte- eta demografia-dinamikez gain, beste zenbait faktore erabakigarri ere badela esan dugu lehen, atzerriko immigrazioari buruzko politika eta jatorrizko herrialdeetako egoera sozio-ekonomikoa eta politikoa, besteak beste. Bi faktoreok konplexuak direnez, gainditu egiten dute txosten honen analisi-eremua. Edonola ere, ez dirudi politiken izaera murriztailea nabarmen aldatuko denik, eta ez da aldaketa esanguratsurik ere antzematen aberastasunaren mundu-mailako banaketari dagokionean ere. Europako Erkidegoen Batzordearen hitzetan¹⁵, "(...) beharrezkoa da adierazpenetan argiak izatea: datozen hamabost edo hogeitun urtetan Europak dezenteko emigrazio garbia jasotzen jarraituko du". Diagnosi hori bat dator Andreu Domingo demografo katalanarekin, datozen urteetan gertaera hori Estatuan areagotu egingo dela esaten baitu. Ez dago zalantzarik, noizbait aldatuko dela joera hori, migrazio-sareak, "irteerako eta helmugako puntuen artean eraten den sare ikusiezin horrek, bere jokabide-arauak eta bere feedback-erretanak dituenak, (...) unereren baten (...) fluxuak gero eta txikiagoak izatea eragingo duenean, agian desagertu ere egin arte"¹⁶. Hala ere, ez dirudi hori hurrengo hamarkadan gerta litekeenik.

Azken batez, atzerriko immigrazioaren faktorea giltzarrietako bat izango da, epe motz eta erdira, bai demografiaren ikuspegitik, zein ekonomia-, politika- edota gizarte-ikuspegitik ere. Halaxe da, prozesu horren ondorioek arras gainditzen dute demografiaren eremua, eta beraz, prozesu hori zein modutan kudeatzen den, nabarmen baldintzatuko du gure gizartearen etorkizuna. Baina saia gaitezen etorkizuneko egoera posibleak zehazten¹⁷.

Biztanleria atzeritarraren hazkundearen zenbatekoa aldagai diskriminatzailetzat harturik, eta etorkizun hurbilean atzeritik datozen pertsonen etorrera eteteko aukera baztertu dugunez gero, bi aukera azter ditzakegu, gutxienik:

1. Hazkundearen erritmoak azken urteotako joerari eustea (1. EGOERA).
2. Erritmo hori areagotzea (2. EGOERA).

1. EGOERA. Hipotesi honetan, handitu egingo litzateke EAEko biztanleria atzeritarra, baina hazkundea ez litzateke bizi-egia izango, egungoaren antzerakoa baizik; horrela, biztanleria horren pisu erlatiboa beti egongo litzateke Estatuko batz bestekoaren azpitik. Jo dezagun bikoiztu egingo dela biztanle atzeritarren kopurua datozen 5 urtetan; kopuru hori Eustatek 2010erako proiektatutako biztanleriarekin alderatzen badugu, biztanleria atzeritarrak populazio osoaren % 8a pasatxo osatuko lukeela kalkulatu dugun.

EAEko gizarte- eta demografia-ezaugarriak kontuan hartuz, etxeko eremuan emakume latinoamerikarren eskariak hazten jarraituko duela aurreikusten da. Beraz, fluxuetan latinoamerikarrek eta emakumeek gero eta pisu handiagoa hartzeko joerak jarraitu egingo du. Dena dela, Europako Batasuna hedatzearen ondorioz, etorkin europarren jarioa nabarmen handituko da, estatu kide berrietatik etorriko baitira hainbat eta hainbat. Toki batetik zein bestetik datozela ere, oso segmentatuta dagoen lan-merkatuan sartuko dira horietako gehienak, eta geruza eskastuenetan¹⁸ lanean jarriko.

Adinaren araberako egiturari dagokionean, zati handiena 20 eta 39 urte bitarteko gizon-emakumeek osatuko dute, gero ere. Baina 20 urtez azpiko eta 65 urtetik gorako pertsonen proportzioen bilakaera, familiak berriz elkartzeko har daitezkeen politiken mende dago, neurri handi baten. Horrela, prozesu hauei bidea errazten ez bazaie, eutsi egingo zaio pilaketari, nahiz eta aurreikusi daitezkeen denboraren joanean haurren ehunekoak gora egingo duela; adin txikieneko multzoak batez ere, EAEn gertatuko diren jaiotzen ondorioz. Familiak berriz elkartzeko prozesuak erraztu eta azkartuko balira berriz, ez litzateke haurren pisu erlatiboa soilik igoko, baita gazteena eta adinekoena ere.

Jaiotza-tasari dagokionez, biztanleria atzerritarraren jaiotza-tasa gordinak gora egiten jarraituko du etorkizun hurbilean, EAeko jaiotza-tasak ere gora egin dezan gero eta gehiago eraginez. Heriotza-tasa gordinari dagokionez ostera, bere horretan eutsiko zaio, seguruena; hala ere, atzerritarren heriotzen gutzitzaiekiko ehuneko gehituz joango da.

Azken finean, gaur egungoaren oso antzerako egoeran egongo ginateke: biztanleria atzerritar gero eta ugariagoa, baina bere garrantzi erlatiboa oraindik ere txikia dena, eta nagusiki gizon-emakume heldu gazteez osatua; multzo horrek bikoteen osaketa kopurua eta jaiotza-tasa igotzen lagunduko luke, eta baita adinaren araberako egitura zertxobait gaztetzen ere.

2. EGOERA. Jo dezagun, orain, etorkinen etorrera areagotu egingo dela, hazkundearen erritmoa azkartu, eta 2010erako hirukoiztu egingo dela biztanleria atzerritarra. Eustatek proiektatutako biztanleriari aplikatuz, biztanleria osoaren % 12a inguru osatuko luke, hau da, 2006an Kataluniak duen egoeraren antzekoa.

Aurreko egoeran deskribatu den bezalaxe, emakume latinoamerikarren eskariak gora egiten jarraituko luke, baina intentsitate honetako hazkundera jatorri askotariko immigrazioaren ondorio litzateke, seguru asko. Zentzu horretan, bi egoera paralelo gerta litezke:

- Fluxuetan latinoamerikarrek eta emakumeek gero eta pisu handiagoa hartzeko joera sendotu eta azkartzea.
- Ikuspegi erlatibotik, beste zenbait jatorriren garrantziak gora egitea (orain Batasunaz kanpoko Europarekin gertatzen ari den moduan¹⁹⁾), eta emakumeek gero eta pisu handiagoa hartzeko joera moteltzea.

Adinaren araberako egiturari dagokionez, hazkundera areagotzeak heldu gazteen multzoko pilaketa areagotzea ekarriko luke; pilaketa hori nabarmenagoa edo leunagoa izan daiteke, familiak osatzeko prozesuen bilakaeraren arabera. Edonola ere, 20 eta 39 urte bitarteko gizon-emakumeen kopuru handiagoak zera ekarriko du, 1. egoeran aurreikusitakoa baino dezentez handiagoko igoera jaiotza-tasa gordinan, eta heriotza-tasen jaitzia ere ekar dezake. Gainera, heriotzen eta, batez ere, (ama atzerritardunen) jaiotzen garrantzi erlatiboak nabarmen egingo luke gora, edozein kasutan.

Egoera horretan, biztanleria atzerritarraren presentzia egun baino dezentez handiagoa izango litzateke, eta adin aktiboetan dauden taldeen pilaketa ere handia, 20 eta 39 urte bitartekoena, batez ere. EAEn adinaren araberako egiturarekiko izango lukeen eragina 1. egoerakoa baino handiagoa izango litzateke, baina inola ere ezingo lirateke hartu biztanleria-mugimendu horiek migrazio ordezkatzailatzat.

6. ONDORIOAK

Txosten honetan zehar, EAEn bizi den biztanleria atzerritarraren demografia-ezaugarri nagusien eboluzioa deskribatu dugu, gure gizartean duen demografia-eragina ere aztertuz. Biztanleria horren proportzioa eta hazkundearen erritmoa beste zenbait lurraldetan dutena baino apalagoak diren arren, zalantzarik gabe, gizon-emakume hauekin gertatzen denak eragin garrantzitsuak izango ditu demografiatik harago ere. Halaxe da, gertaera demografiko baten aurrean gaude; beste herrialde batzuetatik jendea etortzea, alegia. Eta horrek ondorio sozial, ekonomiko nahiz politikoak ditu.

Ez da jende-multzo ugaria, baina kopurua gorantz doa. Askotariko jatorria dute gainera, baina gero eta nabarmenagoa da latinoamerikarren nagusitasuna, kopuruari dagokionean. Sexuaren arabera orekatua da biztanleria-multzo hori, orokorrean, baina oso ezberdin banatua jatorriaren arabera. Adinaren araberako egiturak berriz, pilaketa nabarmena du heldu gazteen adin-multzoetan.

Bestetik, garrantzitsua da zera aipatzea, gure gizartearen zenbait gizarte- eta demografia-ezaugarriak sustatu edo erakarri egiten dutela atzerriko immigrazioa: generoen arteko erlazioan gertatzen ari den eraldakuntzak eta adinak zentzu zabalean birdefinitzeak. Zentzu honetan, eskulan atzeritarrak oso segmentatua dagoen lan-merkatuan sartzea, bertako familiek -eta batez ere emakumeek- familia-bizitza eta lanekoa bateratu ahal izan dezaten laguntzen arituko litzateke, batetik; bestetik, gehiegizko prestakuntza-maila duten gazteek lan-merkatuan utzitako hutsuneak estaltzen. Beraz, migrazio osagarriez hitz egin beharrean gaude, eta ez migrazio ordezkatzailuez.

Azkenik, eta EAEn adinaren araberako egiturari dagokionez, biztanleria atzeritarraren etorrerak hura zertxobait gaztetzen lagundu duela esan behar dugu, eta baita jaiotza-tasa orokorra igotzen ere. Gainera, biztanleria atzeritarraren eragin hori handituz joango da etorkizunean, nola esparru batean hala bestean.

OHARRAK

- ¹ Deskribapen zehatza eta horri buruzko eztabaida begiratzeko jo hona: Domingo (2004) eta Ikuspegi (2005b).
- ² Ugalkortasunaren eta bikoteak osatzeko prozesuen garapenarekiko paralelismoari buruz ari da.
- ³ Autonomia-erkidegoak alderatzeko, ikus Aierdi (2006) eta INE, 2006ko uztailaren 25eko prentsa-oharra.
- ⁴ 2005ean 36.203 ziren Gizarte Segurantzaren kotizatzen zuten gizon-emakume atzerritarrak, hau da, biztanle atzerritarren % 50a. Populazio atzerritarren eta populazio langilearen arteko parekatzearen gaineko eztabaidaren xehetasunak ezagutzeko, ikus Brancós eta Domingo (2001).
- ⁵ Bada horri buruzko hainbat txosten xehatu. Ikus, besteak beste, Immigrazioari begirada aldizkariaren 4. eta 11. zenbakiak eta Aierdi (2006).
- ⁶ Hazkunde Naturala ere esaten zaio.
- ⁷ Lurralde Historikoetako atzerritarren multzoaren osaketari buruzko analisi xehatuagoa hemen: Aierdi (2006) eta Immigrazioari begirada aldizkariaren 1. 4. eta 11. zenbakiak.
- ⁸ Domingo (2004). *Ibid*, 20. or.
- ⁹ Izan ere, generoen rolen eraldakuntza eremu pribatuan eta publikoan parekotasunik gabe garatu izana jo izan da, hain ugalkortasun apala luzatu izana ulertzeko gakoetako bat den faktoretzat (ikus Luxán (2006)).
- ¹⁰ Zenbait emakume belaunaldi, hogeita hamargarren hamarkadan jaiotakoak, belaunaldi kaltetutzat hartu beharko litzateke. Emakume horiek lan-bolumen ikaragarria hartu dute bere gain: haien zaharrak nahiz bilobak zaindu izan eta zaintzen dituzte, eta haien oinordeko zuzenen emantzipazio berantiarra jasan dute, horrek arlo ekonomikoan nahiz etxeko lanari dagokionean dakarren kargarekin.
- ¹¹ Domingo (2004). *Ibid*, 21. or.
- ¹² Bizi-itxaropenak eta emantzipazio-adinak atzeratzen jarraitzen dute. Ondorioz, belaunaldiak mendekoen ardura hartu beharko dute, bai etxeko zaharrena eta baita bere oinordekoena ere.
- ¹³ Eta ez ordezkapenezkoa, ez baitu ordezkatzeko, beste lan-eremu batzuk bete baizik.
- ¹⁴ Askotan, biztanleria atzerritarrak ere badu gehiegizko prestakuntza-maila.
- ¹⁵ EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA (2006), 12. or.
- ¹⁶ Aierdi (2006). *Ibid*, 91. or.
- ¹⁷ Nazioarteko migrazioan eragiten duten hainbat faktoreren bilakaerari lotutako demografia-ariketa bat da, baina ez gara faktore horiek aztertzen hasiko.
- ¹⁸ Geruza eskastua diogunean, bai ekonomikoki, bai lan segurtasunean eta baita lege-estaldura mailan ere ulertu behar da.
- ¹⁹ 15en Europa erreferentzia hartuta.

BIBLIOGRAFIA

- AIERDI, Xabier (2006). "Población extranjera", *Informe socioeconómico de la C.A. de Euskadi, 2006* txostenean. Vitoria-Gasteiz: Eustat, 39-92. or.
- ARREGI, Begoña; LARRAÑAGA, Maribel eta MARTÍN, Unai (2006). "Demografía", *Informe socioeconómico de la C.A. de Euskadi, 2006* txostenean. Vitoria-Gasteiz: Eustat, 1-37. or.
- BRANCOS, Inés eta DOMINGO, Andreu (2001). "Migracions, de reemplaçament o complementàries?", *Papers de Demografia* aldizkarian, 188. zenb.
- EUROPAKO ERKIDEGOEN BATZORDEA (2006). *El futuro demográfico de Europa: transformar un reto en una oportunidad*, ikusgai hemen: www.ikuspegi.org/cas/investigacion/pdf/bepo_migration_final_09_10_006.pdf.
- DOMINGO, Andreu (2004). "La inmigració actual a Espanya. Aspectos demogràfics", *Papers de Demografia* aldizkarian, 252. zenb.
- IKUSPEGI (2004). *Immigrazioari begirada, 1. zenb.*, ikusgai hemen: www.ikuspegi.org/cas/investigacion/panoramica11.pdf.
- IKUSPEGI (2005). *Immigrazioari begirada, 4. zenb.*, ikusgai hemen: www.ikuspegi.org/cas/investigacion/Panoramica_C_04_BAJA.pdf.
- IKUSPEGI (2005b). Atzerriko immigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilbo: Eusko Jaularitza/UPV-EHU.
- IKUSPEGI (2006). *Immigrazioari begirada, 11. zenb.*, ikusgai hemen: www.ikuspegi.org/cas/investigacion/panoramica01.pdf.
- LUXÁN, Marta (2004). "Evolución demográfica y movimientos migratorios", hemen: AGIRREAZKUE-NAGA, J. (dir.) *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos. 6. liburukia*. Donostia: Lur Argitaletxea, 3-28. or.
- LUXÁN, Marta (2006). "Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu?", hemen: GAINDEGIA/SOZIOLOGIA I saila *Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian*, eskuragarri hemen: www.gaindegia.org/eu/jardunaldiak/demografia/files/Ekarpenak_eu.pdf
- PÉREZ, Julio (2003). *La madurez de masas*. Madril: Instituto de Migraciones y servicios Sociales.
- SALT, John; CLARKE, James eta SCHMIDT, Sandra (2000). *Patterns and trends in international migration in Western Europe*. Brusela: Eurostat, European Commission.
- ZUBERO, Imanol (2000). *El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno*. Madril: Ediciones HOAC.

